

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren 2020ko errolda fiskala, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea —, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Zerga ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 13tik maiatzaren 13ra artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 7an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE